

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

8. alea • 2009ko Urtarrila • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea •
• Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08
Orain ere Interneten: www.ekonomiarenkz.eu

Egin zaitez harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hileroko doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupoa honako helbidera:
• 612 Posta Kutxatila. 48080 Bilbo,
• edo idatz ezazu ekonomiarenkz@leizaola.org posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.
ABIZENAK: _____ IZENA: _____
HELBIDEA: _____
TELEFONOA: _____ E-MAIL: _____
HERRIA: _____ P.K.: _____



Enpresa eta Unibertsitatearen arteko lankidetzaren harremanak

Enpresa pribatu askoren antza, Unibertsitatea zenbait proiektuetan euskal enpresa pribatuei laguntzeko prest dago. Bi parteentzat probetxugarria normalean izaten omen den eskarmentua dugu: enpresa pribatuak aurrekontu lehiakor baten truke zerbitzu pertsonalizatuak eta bereziak jasotzen ditu eta Unibertsitateak, aldi berean, hain beharrezkoa den lan mundua eta ikasketan arteko harremana uztartzen du. Nola gauzatzen dira gure gizarteko bi eragile hauen arteko lan harremanak?

10-11. orrialdea

Euskadiko Kutxak ez du atzeraldi ekonomikorik aurreikusten



Urte honetako aurreikuspenen aurkezpenean, Euskadiko Kutxak euskal ekonomiarentzat %2,1eko hazkundea espero duela azalarazi du. Finantza-erakundearen txostenen arabera, Barne Produktu Gordina %0,6koa izango da eta 2010 urte arte itxaron behar izango dugu ekonomiaren susperraldia ikusi ahal izateko.

4. orrialdea



Euskadiko Ganberak BEZ igotzearen alde agertu dira

2008. urteko ekitaldiari birpaktaketa eta aurtengo aurreikuspenak azaldu dituzte Euskal Ganberak. Roman Knörr, Ignacio Maria Echeberria eta Jose Maria Echarri Ganberetako presidentek argitaratutako datuen arabera, Euska-

dik %2,1eko hazkundea izango du hurrengo hilabeteetan. Horrez gain, eskariaren beherakada orekatzeko, BEZ bezalako zergen igoeraren alde agertu dira.

6. orrialdea

ALE HONETAN

• Elkarrizketa



Aitor Soloeta
Getxoko Udaleko
Ekonomia
Arduraduna

8-9. orr.

• Erreportajea



PMP®: enpresaburu zuzenentzako ziurtagiria

6. orr.

• Elkarrizketa



Mikel Madariaga
APD Iparralde
zonaldeko
Presidentea

12. orr.

• Lan Eskaintzak

Lanbide

15. orr.

STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
 E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48000 Bilbo
 TESTUAK ETA ARGAZKIAK: Iais San Jose
 DISENUA ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaestegia
 EGILEA: Leizaola Elkartea
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.



Bizkaiko Foru Aldundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Ekintza honek Bizkaiko Foru
 Aldundiaaren Kultura Sailaren
 laguntza jasotzen du.



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA
 POLITIKARAKO
 SAIBURUORDETZA)
 DIRUZ LAGUNDUTAKO

ADITUAREN IRITZIA

Miguel Sáenz de Viguera

Innobasqueko
 Zuzendaritza
 Nagusiko Aholkularia



Berrikuntzaren beharra

Egungo krisialdia egiturazkoa da. Ekoiztutako produktuen kalitatea handitzea eta, aldi berean, produktu hori lortzeko izandako gastuak gutxitzearen enpresa logika batetik ezagutza berriko ekonomiara doan aldaketa sakon baten erdigunean gaude. Egoera berri honi eman diezaiokogun erantzun bakarra berrikuntza da, aldaketak alde aurretik antzemateko eta, era berean, aldaketa berriak sortzeko. Berrikuntza sorkuntzarekin zuzen-zuzenean erlazionatuta dago, baita ezagutza berrien kudeaketa eraginkorrek ere eta zabalkuntzarekin ere. Berrikuntzarako gaitasuna garatzeak ideien eraldatzerako prozesu eraginkorrak eskatzen du. Era berean, proiektuen kudeaketa arrakastatsu baterako ezagutza berri horiek moldaketaren behar du berrikuntzak. Horretarako, nazioarteko kalitate irizpide zorrotzen menpean, Proiektuen Zuzendaritzako hezkuntza eta eskaldunontzako Gaitasun Profesionalarren Ziurtagiria zabaltzeko asmoz lanean ari gara Innobasquen, Europa mailan berrikuntzaren erreferente Euskadi bihurtzea baita Berrikuntzaren Euskal Agentziaren helburu nagusia.

GORA / BEHERA

GORA

ELKARGIK 10.000 bazkide ditu dagoeneko

10.000 bazkide izatera iritsi berri da elkarte, atxikitutako azken bazkidea Teknovas enpresa izanda. Teknovas suntsikorrek ziren materialen eta bioteknologia nahiz diagnosi ekipamenduen banaketan espezializatuta dago. Kopuru hau ospatzeko asmoz, pasa den abenduan ELKARGIKO Bizkaiko Eskualdeko zuzendaria Jose Ignacio Suarezek Teknovaseko zuzendaria Iñaki Ajuriagoegaskoari elkarteari harrera berezia eskaini zion, Bizkaiko Parke Teknologikoan kokatuta dagoen enpresa honen egoitzan.

Euskadiko enpresei finantziario irtenbideak eskaintzen dizkien Elkarrekiko Garantia Elkarteak du ELKARGI. 1980ean sortuta, ETEi bereziki zuzenduta dago. Izan ere bere bazkide diren enpresen %90a 50 langile baino gutxiagoko enpresak dira. Bazkideen alor ekonomikoek dagokien, industriak %39a ordezkatzen du, merkataritzak %24a eta zerbitzu-sektoreak %17a. 10.000 enpresa bazkide baino gehiagoko kopurua 2005-2008 Plan Estrategikoan finkatutako helburuak betetzera datoz, arduradunen aburuz, elkar-



Suarezek Ajuriagoegaskoari harrera ematen

tearen "garapen baikorra" agerian uzten duena.



Madoffek 50.000 milioi euroko iruzurra egin zuen

BEHERA

Madoff iruzurrak 50.000 milioi euroko galerak utzi ditu

Finantza sistemaren oinarria konfidantza bada, egun diruaren merkatua bera kolokan dagoela esan daiteke. Madoff Iparramerikako inbertsoreak 50.000 milioi euro desagertarazi ditu eta munduko estatuek galdeztzen diote euren buruari nola ote den posible 20 urtez gizon honek diru guzti hori lapurtu ahal izatea merkaturako erregulazio neu-

riak detektatu gabe. Negozioen guruaren ospea izanda, Madoff Nasdaq AEB-tako burtsaren presidentea izan zen eta ezagututako jende boteretsuaz aprobetxatuz, mundu osoko erakunde publiko eta pribatuaren dirua lortu zuen, antza inbertitzeko.

Esan bezala, egungo merkatu liberalizatuan konfidantza da irizpide nagusia. Konfidantzak bankuek haien artean diru-maileguak egiteko eta baita kaleko jendeei emateko ere balio du. Erakunde nahiz tankera desberdineko enpresek izan dituzten galerak kontuan hartuta, ikusi behar da epe luze-rako zein ondorio ekar ditzake. Madoff kasuak argi eta garbi erakusten du merkatu erabat librearen eredu ez dela zuzenena eta estatuen gobernuen partehartzea hura erregulatzeko gero eta beharrezkotzat jotzen dela. Ikusiko da egungo krisiak munduko estatuetako legealdietan izan ditzakeen eragina. Izan ere, gobernuen partehartzeak hilabete hauetan nabarmenak izan dira. Epe luze-rako legearen aldaketak, ziur aski, ekarriko dituen aro berria inauguratzera goaz.

KOMIKIA



www.blazquezcobo.blogspot.com

ALBISTEAK



APDK Bilbon duen egoitzan izan zen abenduan antolatutako mintegia

"Kudeaketan arrakasta izatea ez da enpresaburuen beharra"

Krisi garaian enpresen kudeatzaileen erantzukizuna handitzen omen da. Izan ere, haiek izaten dira oro har bai arrakasta baita baldintza txarren erantzule ere, langile eta gizarte osoaren aurrean. Gauzak horrela, egungo zailtasun ekonomikoaren aurrean enpresaburuek eman beharreko urratsak aztertzen dituen lan-mintegia antolatu du APD Zuzendari-tzaren Aurrerakuntzarako Elkarteak, abenduan, Bilbon duen egoitzan, Garrigues abokatu-bulegoaren lankidetzarekin.

Antonio Rego Lopezek, Garrigues abokatu-bulegoaren Merkataritzako Zuzenbide Saileko bazkide eta abokatuak, eta Pedro Learreta Olarrak, Garrigueseko Auzibide Zuzenbide Saileko bazkide eta abokatuak, krisi garaian enpresaburuek izan ditzaketen zuzenbide erantzukizunei buruzko hitzaldiak eskaini zituzten. Era berean, enpresen zuzendariak dituzten betebeharrak eta betebeharrak ez betetzeak dituzten ondorioak azalarazi zituzten.

"Unean-uneko informazioa"

Antonio Rego Lopezek azaldu zuen Legeak ez dituela zehazki definitzen enpresaren kudeaketarako erantzukizunaren betebe-

harrak, kudeaketaren erantzukizun generikoa besterik ez baita agertzen, "kudeatzeko betebeharra", hain zuzen ere. 2003an, enpresaburuak "gizartearen helburuei leiala" izan behar duela zehaztu zuen Legeak, eta "enpresaren garapenari buruzko unean-uneko informazioa eskuratzeko" betebeharra ere baduela.

Zuzen informatua egotea

"Administratzailea ez dago behartua bere kudeaketan arrakasta izatera", adierazi zuen Lopezek, "gaur egun erakunde askotatik ideia hori sustatu bada ere", higiezi-zen agentziekin gertatu den

legez. Kudeatzaileak enpresarentzat onuragarriak diren neurriak hartzera behartua ikus dezake bere burua, baina Lopezek aburuz, "bere erabakiak ez daude ondorioen menpean", hots, "arduratsua eta zentzudun izatea bakarrik eskatu diezaiokegu". Etorkizunean arazoak ekiditeko, enpresaren norabideari buruz zuzen informatua egotearen garrantzia azpimarratu zuen Lopezek. "Gizarte nahiz erakunde baten kudeaketa zuzen batek halaberrez bizia eta egingorria izan behar du", esan zuen Garrigueseko abokatuak; "ez du balio ondoren, arazoa datorrenean, <<nik ez nekien>> aitzakia argudiatzea".

Prebentziozko neurriak hartu

Enpresak arazo ekonomiko larriak dituenean, Hartzekodunen Konkurtsoa planteatu dezake muturreko irtenbide bezala. Momentu horretan, botere judizialak enpresa horren kudeaketa azter dezake, eta, enpresaburuen kudeaketa okerraren ondorioz, haien erantzukizuna, zibila nahiz penala izan daitekeena, zehaztuko du. Krisi garaian, administratzaileen erantzukizunak "gogortu egiten" direla adierazi zuen Lopezek.

Amaitzeko, Merkataritza Zuzenbideko aditu honek Administrazio Kontseiluko aholkularitza-zerbitzu zuzen baten beharra gomendatu zuen, tankera guztietako arazoak ekiditeko, baita aholkulari independenteak izatea ere. Horrez gain, maiztasun handiko bilerak antolatzea eta enpresari buruzko informazioa jasotzeko ekitaldien amaierara ez itxarotea ere gomendatu zuen abokatuak. Lopezek argitu zuen "berez erregulatzeko eta kontrolatzeko prebentziozko neurriak" funtsezkoak direla.

Berrikuntza eta komertzioen sustapenerako zentroa sortuko du Bilbon Lan Ekintzak

Zailtasunez beteriko egungo egoera ekonomikoak lekuan lekuko irtenbideak eskatzen dituela argi dute erakunde publikoetako buruek. Ildo horretan, Lan Ekintzak, Bilboko enplegu-arazoei erantzuna emateko asmoz igaro den abenduan antolatutako prentsaurrekoan, 2008-2010 urteetarako Plan Estrategikoa aurkeztu zuen.

Planaren aurkezpenak alor desberdinetako adituak izan zituen, hala nola, Jose Luis Ruiz, EGB Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordearen presidentea; Ignacio Marco Gardoqui, ekonomialaria; Igone Ugalde, Labein Tecnaliako Berrikuntza Sistemako Saileko kidea; Jon Mancisidor, BBK-ko zuzendariordea; Jon Sustatxa, Lan Ekintzako presidentea eta Bilboko Udaleko enplegurako zinegotzia, eta Juan Antonio Arrieta, Lan Ekintzako zuzendaria.

Plan Estrategikoa

Lan Ekintzak burutu duen Plan Estrategikoaren funtsa azaltzea izan zen Jon Sustatxa presidentearen ardura. Sustatxak planaren beharrezkotasuna defendatu zuen, Bilbok ere bizi duen "dezelazio ekonomikoaren ondorioz, langabezia handitu egingo baita". Planaren helburu estrategikoak definitzerako orduan, Bilboko Udaleko enplegurako zinegotziak aukera ekonomiko berrien bilaketa, komertzioen sustapena eta ekintzaletasunaren babesa izan zituen hizpide, besteak beste.

Horretarako, Boluetan enpresa berrikuntzarako zentroa jarriko du martxan Lan Ekintzak, "berrikuntzan jaki-

tunak eta alor desberdinetako profesionalak Bilbora ekartzeko" asmoz. Sustatxaren aburuz, "atzerriko enpresentzat Bilboren erakargarritasuna zabaltea izango dugu helburu".

Likideziaren beharra

EGB Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordearen presidente Jose Luis Ruizek eredu ekonomiko berri baten beharra nabarmendu zuen bere hitzaldian, "ikerkuntzan eta berrikuntzan oinarritutakoa". Horretarako, erakundearen partetik I+G eta teknologia berrien arloko inbertsioen garrantzia azpimarratu zuen. Ignacio Marco Gardoqui ekonomialariak egungo krisiaren aitzindariak, zantzuak eta irtenbide posibleak aztertu zituen, hala nola, "erakundeek likidezia eskaintzea, gordailuak bermatzea, zenbait banketxeren nazionalizazioa eta eskariaren laguntzarako neurriak suspertzea".

Igone Ugalde Labein Tecnaliako kidea Jakintzaren Ekonomiararen alde agertu zen, hau da, "zientzia, I+G eta berrikuntza motorra izanda, aberastasunaren iturri bezala". Horretarako, AEBetarik datarren "eko-berrikuntza" filosofiaren gakoak azalarazi zituen, hura "etorkizuna izango den" ustean. Jon Mancisidorrek, BBK-ko zuzendariordeak, bestalde, bere finantza-erakundearen "indarra" azpimarratu zuen, eta maileguak ematearen joerari eusten jarraituko zutela aurreratu zuen. Ekitaldiaren itxiera Bilboko alkate Iñaki Azkunaren eskutik etorri zen, jardunaldi ekonomikoaren azken hitzak esan baitzituen.



ALBISTEAK

Euskadiko Kutxak ez du uste 2009an Euskadik atzeraldi ekonomikorik izango duenik

2008ko azken hiruhilabeteko egoera-balantzea eta datorren ekitaldirako aurreikuspenak eman ditu aditzera Euskadiko Kutxak, Bilboko egoitzan abenduan antolatutako prentsaurrekoan.

Euskadiko Kutxako arduradunek (Elias Atutxa, zuzendari orokorra; Joseba Madariaga, Azterketa Saileko zuzendaria, eta Juan Carlos Benavente, Bizkaiko eskualdeko zuzendaria) Euskadi, Nafarroa eta Espainiar estatuko datorren urterako ikuspegiaren gako ekonomikoak definitu zituzten.

%0,6ko BPG

Bizkaiko kutxako zuzendari orokor Atutxaren aburuz, "duela hilabete batzuk baino okerrago gaude, argi eta garbi", eta datorren ekitalditarako aurreikuspen "ezatseginak" dituztela onartu zuen. Euskadiko Kutxak esku artean dituen datuen arabera, Euskadiko BPG %0,6koa izango da 2009an, 2008an %2,1ekoa izan bada ere. Eskariaren jaitzieraren ondorioz uztaitetik hona eman den prezioen beherakada positibotzat jo bazuten ere, langabezia-tasa kezkarriak azaldu zituzten. Datorren urterako, Espainiar



Euskadiko Kutxaren analisien arabera, Euskadik %0,6ko BPG izango du aurten

estatuan %16,1eko tasa espero da, eta, Euskadin, %7,1ekoa, iaz baino ia puntu oso bat gehiago. Inflazioari dagokionez, ez ziren kezkatu agertu, eskariaren krisia eta petrolioaren prezioaren beherakada direla-eta.

Azterketa Saileko zuzendari Joseba Madariagak barneko eskariaren beherakada orokorraren datuak nabarmendu zituen. Madariagaren ustez, beherakada honen

zergatiak familia-errenten murrizketan eta maileguak lortzeko zailtasunetan bilatu behar ditugu.

2010ean, susperraldia

Atutxak aurkeztutako txostenaren arabera, "2009an hondoa joko dugu", eta 2010. urtera arte itxaron beharko dugu "ekonomiaren susperraldia" ikusteko. Datu txar hauek Euskadiren egoera latza erakusten ba-

dute ere, Euskadiko Kutxako arduradunek ez dute aurreikusten Euskal Autonomia Erkidegoak "ondo ondoko bi hiruhilabeteko hazkunde negatiborik izango duenik"; hori dela eta, ez dago Bizkaiko kutxaren analisien barnean Euskadin 2009an atzeraldi ekonomikorik bizi izango dugunik.

Datuek erakusten dutenez, Euskadi Espainiar estatua baino hobeto ari da krisialdiari aurre egiten. Bate-

rik, euskal ekonomian alor industrialia pisu handikoa eta, egun, lehiakortasun handikoa delako. Bestetik, eraikitza ez du izan Euskadin bestelako Autonomia Erkidegoetako menpekotasuna.

Itxierari ez

Mondragón Corporación Cooperativak (MCC) bere bazkideei murrizketa politika praktikan jartzea gomendatu badie ere, Euskadiko Kutxen arduradunen hitzetan, kutxak "ez du aurreikusten soldaten izozketak edota itxierak". Izan ere, haren zabalkunde plana ez dutela bertan behera utziko azpimarratu zuen, "unean-uneo faktore ekonomikoaren arabera planaren berrikusketak" egingo dituztela adierazi bazuten ere.

Hori bai, 2009. urtean zehar bulegoetan "doitzeak" egingo dituztela aurreratu zuen Atutxak, lanpostuak mantentzeko asmoz, eta "dagoeneko irekita ditugun bulegoerentagarritasuna ateratzeari ekingo diogu". Ildo horretatik, Asturiasen eta Madrilen hasi berri dituzten zabalkuntza berrietan inbertitzen jarraituko dutela adierazi zuen.

Innobasquek eta Bizkaiko emakume enpresarien elkarteak hitzarmena sinatu dute

Euskadiko bigarren eraldaketan euskal emakumeen partehartzea sustatzeko asmoz, AED Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearekin lankidetzahitzarmena sinatu berri du Berrikuntzaren Euskal Agentzia Innobasquek. Innobasqueko zuzendaria nagusia, Jose Maria Villate, eta AEDko presidentea, Matilde Elempuru, izan ziren akordioa sinatu zutenak. Jarduera Programan zehaztu diren ekintzak eta objektiboak betetzera haren konprometua erakutsi zutenak. Horretarako, ekintzaletasuna

eta euskal emakumeek antolatutako enpresetan berrikuntza bizkortzea izango da bi erakundeen helburu nagusia.

Enpresen egituren errazketa

AED 1995ean Bizkaian sortu zen, bertako emakumezko enpresari eta zuzendarien eginkizuna zabalteko beharrezkoak diren egituren eraketa sustatu, erraztu eta bultzatzea du helburu nagusi. Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak 100 bazkide baino gehiago ditu.

Zeregin horretan laguntzeko, elkarteak hitzaldiak, hezkuntza, enpresaburuen topaketak eta foroak, besteak beste, antolatzen ditu.

AEDk emakumeen garapen profesionalari laguntzen die, enpresak sortzeko azpiegiturazko laguntza eta finantziarioa lortzeko babes ekonomikoa eskainiz. Elkarteak lankidetzahitzarmenak ditu erakunde publiko nahiz finantzia-erakunde anitzekin. Era aktibo batean parte hartzen du Europar Gizarte Foroaren EQUAL egitasmoaren bidez prestatzen diren europar proiektuetan.



Villate eta Elempuru, akordioaren sinarmenean

ALBISTEAK

Euskadiko Ganberak BEZ igotzearen alde agertu dira

2008. urteko jarduerak gainbegiratzeko eta Euskadiko Ganberak ekitaldi honetarako dituzten aurreikuspenak azaltzeko bildu ziren abenduan Bilboko Merkataritza Ganberan erakunde honetako hiru lurralde historikoko presidentek, hau da, Roman Knörr, Arabakoa, Ignacio Maria Echeberria, Bizkaikoa, eta Jose Maria Echarri, Gipuzkoakoa.

Arabako Ganberako presidente Roman Knörrrek 2008an Euskadiko Ganberak bultzatutako ekimenak gainbegiratu zituen. Turismoa, enpresariaren arteko lankidetzak, ekintzaletasuna, internazionalizazioa eta komertzioa izan dira, besteak beste, Euskadiko Ganberak iaz jorratu zituzten alorrak. Enpresa familiarrak leku berezia izan du erakunde honek antolatutako jardueren artean. 2008. urtean zehar, Enpresa Familiarraren Gidaliburua editatu dute Euskadiko Ganberak, eta haietako taillerak eta mintegiak antolatu dituzte, enpresa familiarrak haien interesa den hezkuntza jasotzeko, alegia. Zailtasun ekonomikoari dagokionez, Knörrr baikortasunaren alde agertu zen, "egunak pasa ahala, gero eta gutxiago falta zaigu krisialdi honetatik irteerak".

Legea malgutzea

Ignacio Maria Echeberria Bizkaiko Merkataritza Ganberako presidentek 2009. urterako proposamenak azaldu zituen (zatikian garatuta daudenak). Echeberriak lege tesuinguru "malguaren beharra" azalarazi zuen, aldiko eta zehaztugabeko kontratuen arte-

ko erdiko bidea, hain zuzen ere, "merkatuko behar errealei itenbidea emateko asmoz". Eskariaren beharrendaren ondorioz, erakunde publikoen diru-bilketa iaz baino txikiagoa izango dela aurreikusten dute Euskadiko Ganberak. Hura orekatzeko, BEZ zergaren igotzearen alde agertu dira, bai eta Gizarte Zergaren murrizketaren alde ere, "enplegua sortzeko onuragarria izango baita, enpresek diru likidezia nahikoa izango baitute".

%2,1eko hazkundera

Jose Maria Echarri Gipuzkoako Ganberako presidentek pasa den ekitaldiaren analisian egin zuen, eta urte berri honetarako espero diren zifrak aurkeztu zituen. Gauzak horrela, Euskadiko Ganberak %0,7ko puntuan definitzen dute 2009. urteko BPGren hazkundera, datu hau "unean-uneoko faktore ekonomikoaren menpean" badago ere. Alor ekonomiko desberdinak gainbegiratu, guztietan hazkundera eten egingo dela aurreikusten dute. Eraikuntza bezalako sektore batzuetan kontrako hazkundera izango dela erakusten duten datuak jaso zituen Euskadiko Ganberaren txostenak, %1, hain zuzen ere. Orokorrean, %2,1eko hazkundera espero da hurrengo hilaletarako.

Datorren ekitaldiak ez du hazkunderik ekarriko; Echarriren hitzetan, "egoera ia laua izango omen da". Euskadiko Kutzako arduradunek bezala, Euskadiko Ganberetako buruek ere ez dute Euskadirako atzeraldi ekonomikorik aurreikusten.



Eusko Ganberako presidentek Bilbon emandako prentsaurrekoan

2009rako Eusko Ganberaren proposamenak

- Enpresen itotze ekonomikoak ekiditzea, bereziki ETEena: erakunde publikoek beharrezkoak diren baliabideak enpresen esku jarri behar dituzte banketxeak maileguak ematen jarrai dezaten.
- Produktibitate tasa hobetoak lortzea: horretarako, enpleguaren egonkortasuna eta lan absentismoaren murrizketa sustatu behar dira.
- Zuzeneko zergak murriztea (Gizarte Zerga bezala) eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea.
- Administrazio publikoak bere gastua murriztu behar du eta eskariaren beharrenda orekatzeko, BEZaren igotzearen aurka.
- Energiari buruzko Estatu-Akordioa lortzea: energia eta uraren hornidura benetan lehiakorren diren prezioetan bermatzea.
- Administrazio publikoaren erregulazioa eta produktibitatea haztea eta administrazio kudeaketa erraztea.
- Justiziari baliabide gehiago eskaintzea.
- Lehiakortasunaren eta ETEen internazionalizazioaren suspertzea.
- Hezkuntzaren hobekuntza.

2008ko euskal esportazioek %13,8an gora egin dute

Euskadiko esportazioek %13,8ko igotzea izan dute 2008. urteko hirugarren hiru hilabeteetan. 4.490 milioi euroetara helduz, Eustatek argitaratu dituen datuen arabera. 2007. urteko ekitaldian esportazioek maneiatu zuten diru kopurua 4.343 milioi eurokoa izan zen. Epe berrean, inportazioek 20 puntu gora egin dute, 5.354 milioi euroko negozio bolumenarekin. Euskal inportazio

eta esportazioen emaitzei dagokionez, uztaletik irailera doan epeak 414 milioi euroko galera erakusten du.

Energia produktuen igotzea

Esportazioen helmugari dagokionez, aurreko ekitaldian landu diren herrialde berdinak dituzte, guztiek igotzearekin, hala nola, Europar Batasuna (%8,7an igotze duena), Frantzia

(%23,6), Alemania (%12,4), Portugal (%9,3) eta Belgika (%9). Erresuma Batura eta Herbehereetara zuzendutako esportazioei dagokionez, %8 eta %19ko jaitsiera jaso dute, hurrenez hurren. Europar Batasunerako inportazioek ere gora egin dute, %3,8, alegia. Igotze nabarmena jaso duen alorra energia produktuenaz izan da, %40an gora egin baitute Iran eta Errusiatik ekarritako inporta-

zio bolumena. Sektoreka, metalak eta manufaktura-industria izan dira gehien igot-

direnak, esportazioei dagokionez, %41,2, eta inportazioetan, %20,5.



ERREPORTAJEA

PMP® Ziurtagiria: zuzendaria izateko titulua

Titulu eta ziurtagiriaren aroan bizi gara. Egun, masterrak eta Unibertsitateko goi-ikasketak ez dira nahikorik izaten. Sarritan, esperientzia bera baino, esperientzia hori frogatzen duen ziurtagiriaren beharra gero eta nabaria izaten omen da. Izan ere, ez langileei bakarrik, baita enpresaburuei eta zuzendariari ere haren esperientzien egiaztatpena eskatzen zaie. Ideia honetan kokatu dezakegu PMP®, zuzendariak proiektuen kudeaketan haren eskarmentua erakusten duen nazioarteko Ziurtagiria.

Mondragon Unibertsitatea eta Berrikuntzaren Euskal Agentzia Innobasqueren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, euskal enpresaburuek proiektuen kudeaketan duten bere lan esperientzia frogatzen duten nazioarteko ospea duen titulua eskura dezakete. PMP® izenokoa, proiektuen zuzendaritzan nazioarteko irizpideak betetzen dituela egiaztatzen du Ziurtagiriak.

"Aukera paregabea"

Miguel Sáenz de Viguera, goi ingeniari industriala eta Innobasqueko Zuzendaritza Orokorreko aholkularitza lanak betetzen dituena, titulu honen garrantzia azpimarratzen du. "Euskadin egun dugu egitasmo honek aukera paregabea eskaintzen die Arkitektura, Biologia, Fisika, Informatika eta Ingenieritzak bezalako irakasgaietan aritzen diren profesionalak", azaltzen du Miguelek, "proiektuetan erantzukizunak dutenentzako, erakunde publiko nahiz pribatuetan, hura kudeatzeko eta zuzentzeko hezkuntza egonkorra jasotzen baitute". Behin hezkuntza hori jasota, "nazioarte mailan aintzatesen duten PMP® Ziurtagiria lortzeko aukera lutzatzen zaie hautagaiari", argitzen du Innobasqueko Aholkulariak, "geroz eta enpresa eta erakunde gehiagok eskatzen duten titulua dena".



Ziurtagiria lortzeko, Innobasquek antolatutako ikastaroa egin behar da

AENOR Ziurtagiri kopuru gehien dituen Autonomia Erkidegoa da Euskadi

AENOR Ziurtagiri kopuruari dagokionez, Euskadi Espainiar estatuko lehen Autonomia Erkidegoa dugu. Egun, kalitate, ingurunea, I+G, Osasuna eta Lan Segurtasunaren AENOR Ziurtagiriak 2.700 euskal enpresa baino gehiagok jaso dute. Alorrei dagokionez, ziurtagiriaren %29a industriari dagokio, %19a eraikuntzari eta %18,8a, zerbitzuei. Probintziak, Bizkaiak barneratzen ditu ziurtagiri kopuru handiena, %52rekin, hain zuzen ere.

Proiektuak kudeatzera ikasi egiten da eta Euskadin horren gabezia dugula diote aditu askok. PMP® Ziurtagiria gabezi hori konpontzeko asmoz heldu da Europara. PMI eskaintzen duen

hezkuntza AEBetatik datorren joera dugu, izan ere, egun PMP® Ziurtagiria duten %60 inguruk Iparramerikakoak dira jatorriz. "Sustapen indikatzaile altuak baina emaitzen indikatzaile baxuak lortzen ditu Euskadik", adierazten du Miguel Sáenz de Viguera. Horrek esan nahi du, Europako bestelako herrialde baino probetxu txikiagoa ateratzen dugula, hau da, "berrikuntzaren kudeaketan eraginkortasun baxuagoa izaten omen dugula". Hau dela eta, proiektuen kudeaketan irakastea eta hura demostratzen duen tituluen beharra nabarmetzen du Innobasquek.

Enpresa nagusietan

Espainiar estatu mailan, Renfe, Unión Fenosa eta

PMP® Ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak

PMP® Ziurtagiria lortzeko azterketa bat gainditu behar dute hautagaiak. Azterketa honetara aurkeztu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Goi nahiz erdi-mailako Unibertsitate-titulua izatea: ingeniari izan daiteke, lizentziatura nahiz diplomatura
- 3 urteren eta proiektuen kudeaketara dedikaturiko gutxienez 4.500 orduen esperientzia egiaztatzea, behintzat, aurreko 6 urteetakoak izanda
- Proiektuen Zuzenbiderako hezkuntza zehatza hautagaiak jaso duela egiaztatzea: Innobasquek azterketarako prestatzeko klaseak eskaintzen ditu Bizkaiko Parke Teknologikoan duen egoitzan

Azterketa, ingelera

Behin azterketarako prest egonda, Ziurtagiria lortzeko azterketa banakakoa da eta bai Interneten bidez baita horretarako zuzendutako zentroetan ere pertsonalki egin daiteke (Espainiar estatuaren kasuan, Madril eta Bartzelonan).

Azterketaren hizkuntza ofiziala ingelera izaten da, beraz, hizkuntz hau ondo menperatzea gomendatzen da. Izan ere, gaztelera izulpena ere badago baina normalean, ez da zuzena izaten. Behin azterketa gaindituta eta Ziurtagiria lortuta, PMP® mantentzeko proiektuekin erlaziozko lanak bete direla egiaztatu behar da hiru urtero. Horrek Ziurtagiriaren gaurkotzea eta profesionalen biziklatzea bermatzen du.

Naturgas bezalako enpresek PMP® Ziurtagiria duten zuzendariak dituzte haren enpresetan. Nazioarte mailako titulua denez, mundu mailan, milaka dira Ziurtagiria hura duten zuzendariak. Informatika eta telekomunikazioekin erlaziozko enpresak izaten omen dira, tituludun gehien dituztenak. Horrela, IBM eta HP bezalako enpresetako 1.000 langile baino gehiagok PMP® lortu dute. Siemens,

Ericsson eta Oracle Corp enpresetan, esaterako, 500 langile baino gehiagok dira Ziurtagiriaren jabe. Hori dela eta, estatistikek erakusten dute alor ekonomikoaren arabera izaten omen dela Ziurtagiriaren presentzia. Gauzak horrela, telekomunikazioak, industriak, punta-puntako teknologia eta finantza-zerbitzuak dira Ziurtagiriaren tituludunak barneratzen dituzten sektore nagusienak.

PMI, babesle

Project Management Institute nazioarteko Elkarteak da PMP® Ziurtagiria sustatu duena. Ezagutza, informazioa eta proiektuen zuzendaritzaren profesionalizazioarako nazioarteko erreferentia dugu irabazi-asmorik gabeko erakunde hau. Ziurtagiria eta eskaintzen duten hezkuntzari buruzko informazio zabalago jasotze, jo ezazu honako webgune hauetan:

www.innobasque.com
www.pmi.org



Ezkerretik eskuinera, Miguel Sáenz de Viguera, Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko Errektorea eta Jose Mª Villate, Innobasqueko Zuzendaria

Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...



...maila handiko teknologiarekin

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrakoak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



www.itp.es



GRUPO
Industria de Turbo Propulsores, S.A.

ELKARRIZKETA

AITOR SOLOETA

Getxoko Udaleko Ogasun eta Ekonomia Sustapenerako Saileko arduraduna

“Krisialdiak ez ditu ekarriko, halaberrez, komertzioen itxierak”

Bilbotik hurbil eta izaeraz hain desberdina, Getxo, Bizkaiko udalerrri bezala, bere nortasun ekonomikoaren bila ibili da azken hamarkadetan. Izatez, merkataritza da bertako jarduera ekonomiko nagusia, eta krisialdiaren eraginez ematen ari den eskariaren beherapena dela-eta, bertako komertzioek negozioen birmoldaketari ekiteko behartuta ikusi dute euren burua. Alor ekonomiko bakar batekiko menpekotasunaren aurka lan eginez, teknologia berriekin erlazioatutako BizcayTIK egitasmoa garatuko dute datorren urteetan, Microsoft eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzaren baten ondorioz. Udalerriri aberastasuna eramateko formula berriak eta betiko hiri-komertzioei babesa eskaintzea izan dira mintzagai Getxoko Udaleko Ogasun eta Ekonomia Saileko arduradun

Aitor Soloetarekin Ekonomiaren Kazetak izan duen elkarrizketan.

Getxok ia ez du industriarik. Hori dela eta, bertako ekonomia denda txikietan eta komertzioetan oinarritzen da. Nola bizi dute Getxoko komertzioek krisialdi-egoera?

Getxok ez du oro har inolako industriarik. Zerbitzu-sektoreari dedikaturiko enpresak ditugu gehienbat. Izan ere, Getxoko ekonomiaren %33 enpresa eta profesionaleri zuzendutako zerbitzu-sektorea omen da, batez ere ETEak direnak. Bigarren talde garrantzitsua komertzioa izango litzateke, gure ekonomiaren %19, gutxi gorabehera. Komertzioen kopuruari dagokionez, 1.300 merkataritza-gune desberdin ditugu. Komertzioak biztanle-erakunde oso hurbil daude. Hori dela eta, Udalarekiko harremana estua izan behar dela uste dut, lankidetzaren harremana, hain zuzen ere.

Harreman hori funtsezkoa da garai txarretan, zailtasun ekonomikoak daudenean komertzio hauek izaten direlako gehien nabaritzen dutenak.

Halaxe da. Krisialdi momentuetan eskaria geldiarazi egiten da, eta horrek eragin zuzena izaten du beraien-gan, eurak izaten baitira nabaritzen duten lehenetari-koak. Bizi ditugun momentuak zailak badira ere, nire ustez, komertzioek aspalditik bizi zuten egoera berezia. Kontsumitzaileen oihuteren



Soloetaren ustez, komertzioek "aspalditik" bizi dute egoera makalean

aldaketa eman omen da azken 10 urteetatik hona, eta horren arrazoia hirietako inguruetan ugaltu diren merkataritza-zentroetan bilatu behar dugu. Egun, erosketak eta aisialdirako denbora ere zentro horietan ematen dugu, eta hori ez da Euskadiri betidanik gertatu izan dena. Merkataritza-zentroak ez dira deuseztatu behar, baina horien eta hiriko komertzio tradizionalen arteko oreka bilatu behar dugu. Krisiak ere bere alde onak izan ditzake, esaterako, enpresa indartsuenak eta kaudimenduenak zeintzuk diren azalarazten baitu.

Eguneko krisi garai honetan, denda askok ixtera behartuta ikusten dute euren burua. Nola geldiarazi daitezke itxiera hauek eta, aldi berean, negozio berrien irekiera sustatu?

Krisialdia bereziki nabaritu ez dela uste dut. Kontrakoa adieraztea gustatuko litzaidake, baina komertzioek aspalditik egoera makala bizi dute. Aspalditik dugu itxierak irekiera joera, baina ez dut nabaritu, krisialdia dela-eta, makaltasun handiagorik. Behintzat, oraindik. Krisiak ekarriko duena salmenten beherakada izango da,

baina ez halaberrez komertzioen itxialdiak. Izan ere, Udaletik urrats egokiak ematen baditugu eta haiekin lan egiten badugu, krisialdia nabaritzea baina negozioak bere horretan mantentzea espero dut, eta ez euren burua ixtera behartuta ikustea. Soldaten izozketak emango dira eta baita mozkinen murrizketak ere, baina horrek ez du halaberrez itxierarik ekarri behar.

Getxoko Udalak eskatuta, EHUko Ekonomia Aplikatuko Institutuak herrialdearen ekonomiaren diagnostikoa eta datozen hiru

urteetarako Estrategia Planaren egitasmoa egingo du. Zein emaitza espero duzue? Garai txarretan adituen beharra areagotu egiten da?

Merkataritza eta ostalaritza alorren dinamizazio edota marketen plana martxan dugu. Hasieratik egoera konplexua dela antzeman dugunez, hasierako urratsa izan da lehendabizi egoeraren benetako diagnostikoa egitea, bereziki, merkataritza-zentro hauetararako eskariaren ihesaldiak eta bezero berri potentzialen azterketa. Hori dela eta, ikerketa honetarako, EHUko Ekonomia Aplikatuko Institutuaren laguntza izango dugu. Lehenengo inkestaren erantzunak heltzen ari zaizkigu eta espero genuena baino harrera hobea izaten ari gara, eta horrek poztu egiten gaitu, noski. Enpresaburuak behar honetaz jabetu dira, eta oso prest agertu dira iradokizunak bidaltzera.

Noizko izango dituzue ikerketa honen emaitzak eta noiz hasiko zarete zenbait neurri martxan jartzen?

2011ra arte izango dugu EHUko taldearekin lankidetzaren harremana, prozesu guztia haien aholkularitza-pean egingo baitugu. Diagnostikoaren emaitzak jaso ondoren, hemendik aste batzuetara, ekintza konkretuei ekingo diegu, batzuk dagoe-

ELKARRIZKETA

neko aplikatzen ari garen arren. Hala nola, merkataritzaguneetan argiztatze zonaldeak zabaltzea, komertzioen segurtasuna sustatzea eta ostalaritzako terrazen legea malgutzea, besteak beste. Segurtasunari dagokionez, esan behar dut Udaltzaingoaren barneko talde batek komertzioetako segurtasuna zuzenean babesten diharduela, merkatariek Udalarri egindako eskaeren ondorioz. Horretaz aparte, merkatariek elkarrekin batzera animatuko ditugu, haiekin komunikazio ona izan dadin. Merkatariek benetan ordezkatzeko dituzten elkarrekin behar ditugu, asoziazionismoari bultzada ematea, alegia. Egun, Getxo Enpresa eta Merkataritza Elkarte udalerriko garrantzitsuena dugu, baina, oraindik ere, ordezkate maila txikia du.

Getxon kokatutako Microsoftek Zentro Teknologikoak BizcayTIK programa garatuko du. Nazioarteko

mailan aitzindaria izango den zentro honek Foru Aldundiaren 45 milioi euroko aurrekontua izango du. Zer nolako eragina izango du Getxon?

Udalerriko proiektu nagusia dela uste dut. Lehenengo berriak izatean, Getxora ekartzea oso garrantzitsua iruditu zitzaigun, teknologia berriekin eta berrikuntzarekin erlazionatutako alorretan gure udalerriak zeresan handia izan dezakeelako uste baitugu. Zenbait jardura alorretan potentzial handia dugula uste dugu, eta oso pozik gaude horrekin. Ekimen honek nazioarteko teknologia berrien mapan jarriko du Getxo, eta jendea erakarriko du. BizcayTIK programaren garapenarekin batera, Areetako Hiri Elkartegia martxan jarriko dugu, egitasmo eta sektore ekonomiko honi lotutako enpresa berrientzako sarea izango dena. Horrek ahalbidetuko du,



Getxoko ekonomia arduraduna Udalean duen bulegoan

Bilbora edo beste herrialdeetara joan gabe, Getxoko auzokide askok udalerrian bertan lan egiteko aukera

izatea. Getxo lo-hiri bihurtzeko arriskuan dagoela uste dugu, eta proiektu haiekin hori ekidin nahi dugu. Oso

hiri polita izateaz aparte, jardura ekonomiko berriak sortu behar ditugu, aberastasun iturriak biderkatzeko.

“Bilboren osagarri turistikoa izan behar du Getxok”

Zure Udal Sailak turismoaren susperraldia ere barne hartzen du. Getxo turismoaren erreferente-gunea dugu egun Bizkaiko Lurralde Historikoan. Zein da ekonomia getxotarrean turismoak duen indarra?

Oraindik turismoa ez da nagusi, baina bai ikusten dut honetan potentzial handia. Momentuz ez dauka pisu handirik euskal ekonomian, baina izan dezake, duda izpirik gabe. Euskadiko turismo industria oso gaztea da. Guggenheim museoa izan da industria berri horren suspertzailea. Beraz, 10 urte bakarrak daramagu honetan. Bilbo izan da industria berri honen motorra. Primerakoa iruditzen zait Bilbo hainbat handitzea, eta gu horretaz aprobetxatzea espero dugu. Hau da, Bizkaiko hiriburuen pizgarria aprobetxatu, gure herria Bilboren osagarri bezala aurkeztea eta erreferente izatea lortzea. Horretarako baliabideak eta ezaugarriak baditugula uste dut eta lan horretan murgil-

duko gara hurrengo urteetan. Egun, turisten kopurua ez da handia, eta, horren ondorioz, hazkunde nabarmena lortzeko gaitasuna dugulako ustean nago. Kirok-portuak, portu zaharrak, gure bost hondartzek eta Bizkaiko Zubi Esekia garatzeko gaitasun handia

duela uste dut, esan bezala, Bilboren osagarri turistikoa gisa. Eta hori lortzeko, turismoarekin erlazionatutako proiektuak martxan jartzen ditugu. Esaterako, Barcelóren hotela, urte honetarako amaituta egongo dena. Era berean, Turismo Bulegoa ere berrituko

dugu, egungo eskaerei erantzuna emateko asmoz, azpiegitura modernoagoak prestatuko baititugu.

Gurutzaldiak egiten dituzten pertsonak Getxora datoz luxuzko ontzietan, baina normalean ez dira Getxon geratzen, izan ere, autobusa

hartzen dute Bilbora joateko. Zer egin duzue, edo egiteko asmoa duzue, egoera hau aldatzeko?

Orain dela gutxi arte, hori gure herriko errealitatea izan da. Kasu batean izan ezik, gurutzontzi guztiek geldialdiak besterik ez dituzte egin Getxon. Itsasontzi hauek datozen turistak oso denbora murriztua dute; hori dela eta, normalean, alde zuzenetik kontrataturiko txangoen bidez, autobusetan sartzen dituzte eta Bilbora eraman, Getxo oraindik ez delako ezaguna. Turisten ihesaldi hori egotea erabat logikoa iruditzen zait, baina lanean ari gara turista horiek Getxo ezagutzeko aukera izan dezaten. Horrekin batera, turistak daramatzaten autobusek Getxon geltokia izatea lortu egin dugu, behintzat, haiei herria ezagutzeko aukera eskainiz. 2008an, 2007ko gurutzaldi kopurua bikoiztu zen, eta horiek kontuan hartzeko datuak dira. Hori dela eta, turista hauei eusteko, norabide horretan lanean dihardugu.



Bizkaiko Zubi Esekia Euskal Historia-Ondarea da

ERREPORTAJEA

Ikerkuntza Unibertsitatean: euskal enpresa pribatuen mesederako

Unibertsitatearen ikerkuntza alorra oso ezaguna ez den ikuspegia dugu. Enpresa pribatu askoren antza, Unibertsitatea zerbait proiektuetan euskal enpresa pribatuei laguntzeko prest dago. Eta kasu honetan, bestelako enpresek eskaini ezin dituzten zerbitzuak jartzen dute eskura, oso teknologia aurreratu nahiz garestia behar delako. Bi parteentzat probetxugarria normalean izaten omen den eskarmen-tua dugu: enpresa pribatuak aurrekontu lehiakor baten truke zerbitzu pertsonalizatuak eta bereziak jasotzen ditu eta Unibertsitateak, aldi berean, hain beharrezkoa den lan mundua eta ikasketan arteko harremana uztartzen du. EHUko Ingenieritza Goi-Eskola Teknikoko Elektronika eta Telekomunikazio Saileko David de la Vega buru den Ikerkuntza Taldearekin solasean egon gara enpresa pribatuekin haiek izandako esperientziak ezagutzeko.

Euskal unibertsitateetan burutzen diren ikerkuntza lanak aski ezagunak izaten omen dira baina ez enpresa pribatuen lanetarako lagungarriak izan daitezkeela. "Enpresarekin erlazio handia du EHUk eta egia da

errealitate hori asko ezaguna ez dela", onartzen du David de la Vegak, EHUko Ingenieritza Goi-Eskola Teknikoko Elektronika eta Telekomunikazio Sailekoa. "Gure kasuan den Ingenieritza Eskolak lankidetzaz anitz egin ditu enpresa desberdinekin", azaltzen du Davidek, "uste denaren kontra, beti ez da unibertsitatea enpresen atzetik ibiltzen proiekturen bat ala bestea proposatzen", izan ere, "normalean enpresak beraiek izaten dira gugana etortzen direnak ikerketa edo azterketa konkretu bat eskatzuz".

Unibertsitateengana jotzea

Zer dela eta enpresa batek jotzen du Unibertsitatearengana? Arrazoiak anitzak dira. Batetik, "interesatua ez den norbaiten eske daudelako", azaltzen digu Davidek, "hots, emaitzak alde batekoak ala besteak izatean inolako interesik ez duen erakunde independententea behar dutelako". Izan ere, Unibertsitateen zerbitzuak eskatzen dira, oro har, emaitza objektiboak behar direnean. Bigarren arrazoiak "proiektu horrek ikerkuntza den atal bat duenean" izaten omen da, Daviden hitzetan,



Oiz mendian Eólicas de Euskadik jarrirako haize-sorgailuak

"horretarako, denbora nahiko behar baita argi ez dagoen egoera eta ondorengo emaitzak aztertzeko" eta sarritan, enpresa batek ez du tankera horrelako proiektuei eusteko ez astirik ezta baliabiderik ere.

Unibertsitateen ikerkuntza taldeengana jotzeko hirugarren kasu bat dago, "enpresa horrek neurtzeko teknologiaren beharra dagoenean", hain zuzen ere.

Neurtzeko teknologia erostea eta hura mantentzea aski garestia izaten omen da, horren ondorioz, enpresa gehienentzat ez du merzei hura erostea, momentu zehatz batzuetan besterik erabiltzen ez delako. Horrela, normalean enpresa guztien esku ez dagoen ekipamendua Unibertsitateak berak jartzen du.

Enpresarekin lanean hastea


Behin Unibertsitateak enpresak eskatzen duen proiektuaren bideragarritasuna aztertuta eta onartuta, aurrekontua helarazten zaio enpresari eta onartu bezain laster, Unibertsitatea eta enpresa hura lotzen duen kontratua egiteari ekiten diote. Aurrekontuari dagokionez, "EHUK baditu bere tarifa propioak", argitzen du Davidek, "eta kontratatze prozesu guztia SPRI edo Euskoiker bezalako erakunde behaketapean egiten da". Izan ere, erakunde hauek izaten dira sarritan enpresa eta Unibertsitatearen arteko lankidetzaz harremanak kudeatzen dituztenak, beti ere EHUk berak emandako baimenarekin.

Enpresa pribatu batek bere zerbitzuak eskaintzen

dituen antza, enpresatik jasotzen den diru horren gehiengoa Unibertsitateara doa. Proiektuak eman dituen gastuetarako erabiltzen da, "funtzionamendu kostuetarako", zehazten du Davidek. "Gure proiektuen gehiengoak neurketetan oinarritzen dira", dio ingeniariak, "eta neurketa horiek egiteko teknologia bereziak erabili behar dira". Ingenieritza Goi-Eskola Teknikoko Elektronika eta Telekomunikazio Saileko ikerkuntza taldeak neurketa unitate mugikor bat du eta ekipamendu hauek oso garestiak izaten omen dira. Hori dela eta, "unitate hau erosteko eta mantentzeko erabiltzen dugu diru hori", azaltzen du Davidek. Ikerkuntza lanetan beka-dunek partehartzen badute, haiei ordaintzeko ere erabil daiteke diru hori.

Daviden esperientzia

David buru den Bilboko Ingenieritza Goi-Eskolako ikerkuntza taldeak Eólicas de Euskadi enpresarekin lan interesagarriak burutu dituzten arteko lankidetzaz harremanak kudeatzen dituztenak, beti ere EHUk berak emandako baimenarekin. Enpresa pribatu batek bere zerbitzuak eskaintzen



EHUko Ingenieritza Eskolako Elektronika eta Telekomunikazio Saileko ia lantalde osoa

ERREPORTAJEA

Unibertsitatearen zerbitzuak nola kontratatu

Edozein enpresak kontratu ditzake Unibertsitateen zerbitzuak berak behar dituen ikerketa edo proiektu baterako. Alorraren arabera, Unibertsitatearen Sail batera edo bestera jo beharko du. Oro har, Ikerkuntza Errektoreordetzara jotzen da.

Irrati eta telebista digitaleko seinaleari dagozkien zerbitzuetan laguntzeko du David de la Vegaren ikerkuntza taldeak. Lantaldea 12 irakaslez, 5 ingeniari (2, teknikariak eta 3, goi mailakoak) eta 4. eta 5. mailako ikaslez osatuta dago. Irakasleei dagokionez, normalean proiektu guztietan parte hartzen dutenak David bera, Carlos Fernandez eta Itziar Angulo izaten dira.

Objektiboak definitzea

Haiekin harremanetan jartzeko, Davidek gomendatzen du "ikerkuntza taldeko norbaitekin kontaktatzea", lehenik eta behin, "proiektu horrekin enpresak lortu nahi dituen objektiboak definitu behar baitira". Ondoren, "bakoitzaren beharrak eta epeak finkatzeko bilera antolatzen da". Behin informazio guztia aztertuta, Unibertsitateko lantaldeak "proiektu-proposamena, lan planaldia eta aurrekontua prestatzen ditu", azaltzen du Davidek. Bai enpresa bai Unibertsitatearen onarpena izanda, kontratu formalizatu egiten da eta lanean hasten da David buru den taldea.

ten du lan. Nola sortu zen EHUKo ikerkuntza talde eta Eólicas de Euskadiren arteko lan-kidetzak? "Oiz mendian jadanik jarrita zeuden haize-sorgailuek gune horretako telekomunikazioetan izaten duten eragina aztertzeko kontratatu gintuen". Izan ere, Markinan telebista txarto ikusten omen zen eta bertatik hurbil kokaturiko haize-sorgailuengatik zela somatzen zuten. Lana burutzeko, "egoeraren azterketa eta

irtenbide posibleak mahai gainean jarri genituen, hots, zeintzu elementu izan zitezkeen telebista txarto ikustearren eragileak", gogora ekartzen du Davidek. Haize-sorgailuak kentzea oso konplikatu eta garestia da. Hau dela eta, bestelako konponbideak maneiatu zituzten eta "enpresa, administrazio, telebista operadore eta gure ikerkuntza taldearen artean bata aukeratu". Egun, Markinan, telebista primeran



Oiz mendian unitate mugikorrarekin lan egiten

ikusi egiten da eta ez da haize-sorgailu bat ere kendu behar izan.

Handik gutxira, Eólicas de Euskadik Oizeko Haize Parkearen zabalkuntzari ekin nahi zion eta oraingo honetan, "haize sorgailu berriak jarri baino lehen, gure laguntza eskatu zuten", adierazten du harro Davidek. Horrela, prozesua hasieratik kudeatzeko aukera izan zuten. "Aldez aurretiko ikerketa prestatu genuen", gogoratzen du ingeniariak, "partaide ziren eragile guztien arteko bilerak antolatu eta bakoitzak bere iritziak bota zituen". Azken batean, Unibertsitatearen papera sarri askotan bitartekaritza lanak betetzearena izaten omen da, hau da, "bata eta besteen interesak uztartzen saiatzea", hain zuzen ere. Eólicas de Euskadirekin


izandako lanak beste enpresek proiektuak lortzeko aukera eskaini die Daviden ikerkuntza taldeari. "Beste euskal Haize Parkeen garapenerako ikerketa berriak eskatu dizkigute, ESB eta Gamesa bezalako enpresek lan egin dugu edo horretan dihardugu gau egun", dio Davidek.

Etorkizuneko energia

Energia eta telekomunikazioen arteko elkarbizikidetzak sustatzea izaten da, oro har, Daviden taldeko lana, hau da, haize-sorgailuek edozein motatako telekomunikazioetan eragin ditzaketan seirialen galerak. Haize energia etorkizuneko energia kontsidera dezakegu? "Ikerketa bat egiten dugunean guk ez diogu geure buruari galdeztzen energia mota horren

alde ala kontra ote gauden", erantzuten du zuhurtziaz Ingenieritza Eskolako irakasleak, "gure ikerketako emaitzak berdinak izango dira, guk iritzi batekoa ala bestekoa izanda, hots, haize energia, energia nuklearra ala bestelako energiari buruz ari garenean".

Hala ere, gizarteak energia garbien aldeko apostua egin behar duen iritzikoa da David. "Haize energia sustatu behar dugunaren usteakoa naiz", hori bai, "energia hori finkatzeko baldintza onak eman behar dira: kokaleku aproposenak bilatzea, inguruneakiko errespetuzko jarrera izatea nahiz bestelako zerbitzuak oztapuzten ez dituen eredu energetikoak bultzatzea", hain zuzen ere, "esaterako, interferentziak telekomunikazioetan".



Ezkerretik eskuinera: David de la Vega, Carlos Fernández eta Itziar Angulo

Konfidentzialtasuna bermatzea

Edozein ikerkuntza talde batentzat oso garrantzitsua den konfidentzialtasunaren kontzeptuari buruz hitz egin digu Davidek. Haien hura errespetatzea "funtsezkoa" bilakatzen da. Konfidentzialtasuna eskatu dezake "enpresak berak ala guk geuk", dio Davidek, "emaitzen nahiz proiektuaren arabera, hura bermatzea hala guk uste dugulako". Proiektuen emaitzen publikotasunari dagokionez, hura ere gordetzen da, normalean. "Enpresak berak erabaki behar du emaitzak publikoak egin nahi dituen ala ez", azaltzen du ingeniariak, "hori bai, emaitza hori lortzeko metodologia berritzaileak erabili baditugu, enpresari baimena eskatuz, zenbait aldizkarietan artikulua argitaratzera animatzen gara lanzean behin". Kasu hauetan, Unibertsitatearen zerbitzuak kontratatu dituen enpresa hori ere agertuko da artikulua zientifiko horren egile modura.

ELKARRIZKETA

MIKEL MADARIAGA TORRE

APD Zuzendaritzaren Aurrerakuntzarako Elkarteko iparraldeko zonaldeko presidentea

“Euskal enpresaburuari komertzialagoa izatea falta zaio”

Enpresaburuak izaten dira, ekonomistekin batera, krisi garaietan protagonismo handiena duten pertsonak. Izan ere, baldintza ekonomikoak onuragarriak izaten direnean, haietaz aprobetxatzeko lehenetarikoa izaten dira, baina egia da, baita ere, gauzak oker doazenean, haiek agertzen direla askotan errudun bezala. Espainiar estatuko iparraldeko enpresaburuak biltzen dituen elkarteko presidentea Mikel Madariagarekin egon gara solasean, enpresetako zuzendariak krisian duten papera ezagutzeko.

Zein ezaugarri izan behar ditu enpresaburu zuzen batek?

Zuzendari egokia izateko, lehenbizi, komertziala izan behar zara. Era berean, gaur egun oso garrantzitsua da berriak izatea eta berrikuntzaren kultura hori zure enpresan sartzea. Merkatua mundu guztia dela ikusi behar duzu, era globalean, alegia, eta teknologia berriak erabili behar dira. Beste parte garrantzitsua honako hau da: talde proaktibo bat lortzea; guztien iritzia onak dira proiektu berriak garatzeko, lan egiteko giro ona sortzeko eta zure konpetentziatik bereizteko.

Zer nolako eragina du bizi garen krisialdiak goikarguetan?

Krisia Euskadira beranduago heldu da, eta emaitzak oraindik ez dira erabat ikusi. 2009ko hasiera gogorra izango da. Automobilgintzarekin erlazionaturako enpresek bereziki momentu txarrak bizi izango dituzte. Hala ere, Euskadin industriak duen indarra dela-eta, krisialdia ez da hain larria izan. Estatuko beste Autonomia Erkidegoekin konparatuta, Euskadin hobeto gaudela uste dut. 2008. urtean zehar eta aurreko urteetan ere berrikuntzaren inguruan lanean ibili gara, krisialdiari aurre egiteko. Indartsua-



“Enpresa gehienek badute krisialdia gainditzeko koltxoi modukoa”

go gaudenez, krisialditik lehenago aterako gara. Baita euskal ekonomiarengan erai-kuntzaren pisua hain nabarmena ez delako ere. Momentu honetan, enpresak bere horretan mantendu behar dira, ekonomia berriro ere gorantz doanean, inbertsioei eusteko. Azken 13 urteak oparotasun garaia izan dira, eta, hori dela eta, enpresa gehienek badute krisialdia gainditzeko koltxoi modukoa.

Zer falta zaie gure euskal enpresaburuari?

Bi gauza daude, nire ustez. Bata, komertzial profila gehiago jorratzea. Euskadi herri industrialia izan da betidanik, eta ekoizten genuen guztia zuzenean saltzera ohituta geunden. Gauzak, egun, aldatu egin dira. Soberakinak ditugu eta lehiakortasun handia dago. Beraz, hura saltzeko, enpresaburuak komertzialak izan behar dira, eta hori Euskadiko zuzendariak duten gabezia garrantzitsua dela uste dut. Bestea, kanpora gehiago irtetea. Orokorrean, ez dugu kanporatzeko ohiturarik. Horretarako, bi arrazoi egon daitezke: batetik, hizkuntzak, eta, bes-

tetik, AEBetan ez bezala, he-men lanaz aldatzea eta lan mugikortasuna egitea asko kostatzen zaigu. Ez dugu bizilekuz mugitzeko kultura hori.

APD hezkuntza zentroa ere bada. Sarritan, langileen hezkuntzan inbertitzearen beharra azaltzen da. Behar hori zuzendariengan ere luzatu daiteke?

Enpresaren funtzionamendu zuzenerako, enpresaburuek hezkuntza jaso behar dute. Funtsezkoa da enpresa parte-hartzailea izatea, baina horrek ez du esan nahi demokratikoa izan behar duenik. Ardurak, azken finean, zuzendaritzarengan daude. Zure langileak entzutea inportantea da, haiek ezagutzen baitute zein den beren arloa eta haiek izango dituztelako emaitza hobekoak lortzeko ideia onenak. Baina enpresa bat ezin da demokratikoa izan; ezinezkoa da momentu oro proposamen guztiak kontsultatzea, azken batean, azken erabakia jabearena izango baita.

Krisi garaian enpresaburuak errudun agertzen dira

askotan, eta, horren ondorioz, zigorra merezi dutela ematen du. Noraino du zuzendari batek bere enpresaren kudeaketa okerraren ardura? Eta, nahiz eta kudeaketa txukuna egin, salmentak jaisten badira? Nola egin aurre honi?

Enpresaburuak bere lana ondo egin badu (eta hori ikusi egiten da) eta, baldintza ekonomiko txarren ondorioz, bezeroen eskariak murrizten badira, esaterako, ez dut uste honetan enpresaburuak erantzukizuna duenik. Bai izan dezake erantzukizuna bere enpresako zenbakiekin ondo begiratzen ez badie, zuzendaritza talde on bat ez badu edota beste merkatuen bila aritzen ez bada. Baina egun-egoera ekonomikoa ez da enpresaburuaren erantzukizuna, aurreko ekitaldian bere lana zuzen egin badu. Egia da, era berean, gure erantzukizunaren artean dagoela enpresak izango duen bilakaera antzematea, baina kontuan hartu behar da oraingo krisialdi hau oso arin garatu dela eta ez dela izan alde zuzeneko antzemateko batere erraza.

Enpresa familiarrak nortasun bereziko negozioak izaten omen dira. Egun, zailtasun ugari omen dituzte. Nola lagundu diezaiokegu lan honetan?

Gure elkartean ere baditugu enpresa familiarren jabeak. Krisiak sortzen dituen arazoak berdinak dira, nire ustez, enpresa normal baten antzeko enpresa familiar baten antzeko. Egun, enpresa familiarrak duela 10-15 urte baino profesionalizatuagoak daude eta momentu zailetan erabakiak hartzeko erraztasun handiagoak dituzte, kooperatibek bezala. Mondragón Corporación Cooperativak erabaki duen bezala, beste batzuen artean, Gabonetako soldadari uko egitearen neurriak, enpresa familiarretan ere hartzea errazagoa izaten omen da. Hori dela eta, enpresa babesteko baliabide gehiago dituztela uste dut. Horretaz aparte, enpresa familiarrentzako laguntza ugari ditugu gaur egun.

Sindikatuak sarritan enpresak jasan ezin ditzakeen eskakizunak egiten dituzte. Nola kudeatu daitezke halako egoerak?

Enpresaburuak oso garde-nak izan behar gara gure eguneroko lanean, eta gardentasun eta zintotasun hori betiko ardura izan dela uste dut. Lortutako irabazien zifra eta diru horrekin zer egiten duzun sindikatuak azaltzea funtsezkoa ikusten dut. Enpresaburuak hori horrela egin badu eta momentu horretan enpresa ondo ez badao eta horrela jarraituz gero enpresa itxi daitekeela ikusita, sindikatuak eskaerak moldatu beharko dituzte. Horretarako, garrantzi handikoa ikusten dut langile, sindikatu eta enpresaburuaren arteko komunikazio ona izatea, azkenean, guztiak itsasontzi berean goazelako.

MUNDURA BEGIRA

Obama, AEBtako ekonomiaren erreskaterra

AEBtako 44. presidentea, Barack Obama, Etxe Zuriar dugu jadanik. Bere legealdirako erronka anitz ditu, izan ere, George W. Bushen duela 8 urte baino okerrago utzi baitu herrialdea. Erronken artean ekonomiaren suspertzea izango da nagusia. Egungo mundu globalean, herrialde guztietako gobernuek arreta handiz jarraitzen dituzte AEBtako gertaerak, bertan gertatutakoa, handik gutxira Europar gerta daitekeenaren ispilua baita.

Obamaren herentzia

Obamak azken 30 urteko egoera ekonomiko latzena eta atzerriko guda baten ondorengoa jaso du herentziaz. Irakeko gerra nazioarteko mailan AEBtako irudia okertu egin du, haren munduko potentzia eta esportatutako baloreak kolokan jarri dira. Hala ere, hauteskunde kanpianin behin eta berriro botatutako hitzaldiak izan dira Etxe Zurira eraman diote-

nak. Iparramerikarrek haren gan konfidantza osoa luzatu diote eta ospe tasa altuekin irabazi duen presidentea dugu Obama. Horrez gain, Kongresuko gehiengoak lortu du azaroko hauteskundeetan eta haren proposamenak eta legeak aurrera ateratzeko Kongresuko babes osoa izango du presidente berriak, gehiengo Alderdi Demokratikak baitu.

Oreka berreskuratzeko

AEBak haren oreka berreskuratzeko hainbat arazo ditu konpontzeke. Lehenik eta behin, kontsumo pribatuaren beharadari aurre egitea. Gutxiago kontsumitzeak ibilgailu eta etxeko gailu elektrikoaren industriaren beherakada ekarri du eta honek bigarren faktoreakin zuzen erlaxatuta dago. Langabezi tasa egungo %6tik %9ra igo daiteke. Urte honetan zehar AEBtan 4 milioi lanpostu baino gehiago galduko dira, adituek maneiatzen dituzten datuen arabere-

ra. Enplegu barik iparramerikar familia ugari haren maileguak ordaintzeko zailtasun nabarmenak izango dituzte eta horren ondorioz, berankortasunak gora egingo du. Finantza-erakundeei dagokionez, haren arazo nagusia maileguen murrizketa izango da eta honek enpresengan izango du eragin zuzena, lanpostu berriak sortzeko edota inbertsioak egiteko diru gutxiago izango baitute eskura.

Pizgarri ekonomikorako plana

AEBtako krisialdia atzeraldi ekonomiko bihurtzeko arriskuan dago eta hura ekiditzeko, hainbat neurri zorrotzak jarri behar izango ditu Obamaren lantaldeak. Horrela, presidente berriak suspertuta planari eusten dio. AEBtako Kongresukideak pizgarri ekonomikorako 700.000 milioi dolarreko estrategia prestatzen aritu dira. Plan honek inbertsioak azpiegituratan enpleguaren sustape-



Urtarrilaren 20tik aurrera Etxe Zuriak jabe berria izango du

narako, teknologia berriak eta ordezko energia-iturriak dituzte helburu gisa. Ikusteke dago Obamak hitza emandakoa betetzeko baliabideak eta gaitasuna ote dituen.



AEBtako krisialdiaren jatorria

AEBtako finantza erakundeek mailegua emateko politika malgua izan dute azken 20 urteetan. Hori dela eta, 70, 80 eta 90ko hamarkadan dirua arin eta kantitate handiak lortzeko asmoz, kredituak edonori ematen zituen inbertsio enpresak ugaritu egin ziren. Kreditu hauen onuradunak klase ertaineko familiak izan ziren gehienbat. Subprimek, edo kreditu zaborrek ere deituak, beste maileguak ez duten ezaugarri berezia zuten: berme gabeko eta interes tasa altuko kredituak ziren. Ez ordaintze arrisku tasa altuagoa izanda, atzeraldi ekonomikoaren kasuan, ordaintzeari uko egin zezaketen lehenak izan zitezkeen eta horren ondorioz, inbertsio banku hauek suntsipenara eraman. Izan ere, bezeroek eskatutako kreditu zaborrak era masiboan ordaindu ezinak dirua eman duen bankuaren porrota ekarri dute eta baita kreditu horren gaineko lagapena negoziatu dutenen bitartekari erakunde hoi porrota ere. Horrezkero, nazioarteko bankuen porrota katea aise eraz eragin dezake.

Kreditu zaborren ezaugarriak

Krisialdiaren lehenengo larrialdi seinalea piztu zuena pasa den urteko subprime edo kreditu zaborren burbuilaren zapuzketa izan zen. Zeintzuk dira kreditu berezi hauen ezaugarriak?

-Subprime kredituen gehiengo hipotekarioak dira, hau da, bankuek utzitako diruak etxeak salerosteko erabili zirela gehienbat.

-AEBtako Erreserba Federalak (FED) kredituak izan dezaketen gehieneko arrisku tasa finkatzen du (haien ordainketa bermatzeko asmoz). Subprime kredituak FED zehaztutako baino arrisku tasa altuagoa izan dezake, bitarteko bezala funtzionatzen duen erakunde batek kreditu horren gaineko ordaintze eskubideak erosten baditu.

-Subprimek, edo zabor kredituak ere deituak, beste kredituak baino interes tasa altuagoa ere izaten dute, 1,5 puntutik 7 punturainoko diferentzia izan dezaketena.

-Kredituak emateko erabakitzeke orduan, AEBtan puntutan finkatutako baremoa erabiltzen da. Kreditua eskatzen duenaren ondasunak aztertzen ditu finantza erakundeak eta horren arabera 850 eta 650 bitarteko eskala batean sartzen du bezeroa. Gero eta puntu gutxiago lortu, kredituaren komisio garestiagoak eta interes tasak altuagoak izango dira.

2002. urtean AEBtako finantza erakundein subprime kredituen bolumenta merkatuko %7 zen. 2007. urtean, %12,5koa.

TEKNOLOGIA

Luxuzko telefono mugikorrak

Luxua bizitzako edozein objektuan aurki dezakegu eta telefono mugikorrek ez dira joera honetatik kanpo geratzen. Vertuk, luxuzko mugikorrek egiten dituen nazioarteko enpresa, aurren ospatzen du bere 10. urteurrena. Haren produktuak goi-mailako enpresariei zuzendutakoak dira, kalitate handikoak direlako eta noski, patrika guztien eskura ez baitaude.

Terminal hauen berezitasuna hura egiteko materialetan datza. Vertuk kalitate handiko larrua eta material bitxiak erabiltzen ditu. Erresuma Batuko hezkuntza altuko artisauek eskuz egiten dituzte terminalak eta bere egonkortasuna frogatzeko milaka azterketa egiten dizkiete unitate bakoitzari.

Mugikor hauek luxua eta modan dauden puntako teknologiaren ordezkariak dira. Bezero bakoitzaren gustuen arabera, pertsonalizatu daiteke: platinoa, 18 kilateko urre zuria edo horia eta urrea edo larrua altzairu herdoilgaitzarekin. Mugikorraren azalera titaniozkoa da eta errubizko xehetasunak ditu tekletan.

Bere salneurria modeloaren arabera izaten da: 3.600 eurotatik 72.000 eurotara. Modelo garestiena Boucheron frantsez enpresaren laguntzarekin egindakoa da: 191.000 eurokoaren truke, edizio mugatutako mugikorra, errubiz eta esmeraldaz egindakoa, alegia.

Esklusiboko mugikor hauek bitxitegian besterik ez dituzte aurkituko. Hona hemen bilduma bakoitzeko mugikor baten adibidea:

Constellation



Signature



ARDOAK

Lambrusco

Italiak ardo anitz baditu ere, orain dela urte gutxi batzuk arte ez da nazioarteko ardo merkatuan bereziki nabarmendu. Egun gauzak aldatu egin dira eta zenbait ardo gazteak gure mahai gainean gero eta gehiago ikusten ditugu. Kasu honetakoa dugu Lambrusco ardoa. Emilia-Romagna (Modena) Italiako lurraldeetatik dator eta hiru Jatorrizko Izendura ditu: Sorbana, Grasparrissa di Castelvetro eta Salamino di Santa Croce.

Aparduna den ardoa dugu Lambrusco, edateko erraza eta ia edozein tankerako janariaren osagarri izan daitekeena. Goxoa da eta burbuilak ematen dizkien garratz puntua badu. Hori bai, ardoa hartu baino lehen hozkailuan ordu batzuk igaro behar ditu, soilik hotz-hotza dasta daitekeelako bere osotasunean. Salneurria markaren arabera izango da baina oro har, 3 euro ingurukoa izaten omen da.

ZURIA

FRIZZANTE ARDO ITALIARRA

SALNEURRIA: 4 €

PRIMERAN DOA: haragiarekin



BELTZA

FRIZZANTE ROSSO DOLCE ARDO ITALIARRA

SALNEURRIA: 2 €

PRIMERAN DOA: orearekin



GORRIA

FRIZZANTE ROSATO ARDO ITALIARRA

SALNEURRIA: 3 €

PRIMERAN DOA: edozein jaki italiarrarekin, esaterako, pizzak

JATETXEA

Loiuko Sagardotegia



Haritz ingurututako jatetxea dugu Loiukoa

Euskadiko sukaldaritza tradizionala eta aisialdirako guneak uztartzen ditu Loiuko Sagardotegiak. Platerrak finkatuta dituen menuez aparte, buffet erako jate-txeaz gozatzeko aukera eskaintzen du jatetxeak. Izan ere, bi jantoki mota daude: sagardotegiko janari tradi-

zionalak eskaintzen duen jantokia eta buffet janaria eskaintzen duena. Ohiko janariaren artean bakailao, haragia eta euskal hestebete aurki ditzakegu.

Harizti batez inguratuta, Sagardotegiak bai umeak dituzten familiei baita bikoteei ere giro lasaia eskaintzen die. Parkinak, zonalde berdeek eta umeentzako guneak familia guztia eguna igarotzeko primerakoa bihurtzen dute jatetxea.

2 PERTSONENTZAKO MENUA

- Txistorra eta txorizoa sagardoarekin
- Bakailao-nahaskia
- 1,2 kiloko behi-txuleta
- Hegaluzea tomatearekin edo bakailao piper berdeekin
- Era askotako postreak
- Ramon Bilbao Ontzeko ardo beltza



GUZTIRA: 89,4€

Loiuko Sagardotegia / Zabalotxe auzoa, 18 / 48180-Loiu-Bizkaia /
Telf 94 453 00 77- 94 453 00 88 / www.sidreria-loiu.com

AISIALDIA

Estresari aurre egiteko proposamena

Lanak aste osoan zehar eragiten duen estresari aurre egiteko, hona hemen hilabete honetan Ekonomiaren Kazetak proposatzen duen aisialdirako ideia:

Golf

Kirola baino gehiago, askorentzat bizimodu golfa. Asitirik nahiko dutenean, golf zelaira jotzen dute zulo batzuk jokatzera. Hilabete honetako proposamena golf zaleei dedikaturikoa da.

Euskal Autonomia Erkidegotik ordu eta erdira kotxez joanda, Errioxak altxor asko eskaintzen ditu: ardoak, xarmaz beteriko herrixkak eta golf zelai zabalak, besteak beste. Hemen proposa-

tutako asteburu baterako egitasmoan, Aymerich Golf Clubeko zelaietan jokatzeko eta "La Chatilla de Fernando Andrés" jatetxean afaltzeko aukera ditu barne. Zure golf makilak prestatzea besterik

ez duzu egin behar. Golf zelaietan zulo batzuk besterik egin nahi ez baduzu, Aymerich Golf Clubarekin kontaktuan jarri, zure nahietara egokitutako planak baitituzte.



Aymerich Golf Clubeko golf zelaia

Astebururako proposamena (bi pertsonentzako):

Ostirala

Errioxako ardoarekin harrera

"La Chatilla de Fernando Andrés" jatetxean afaria

Larunbata

Buffet gosaria

Sojelako Golf Zelaiko partida (18 zulo)

Casa Club jatetxean janaria

Upeltegietara bisitaldia eta ardoen dastapena

"La Chatilla de Fernando Andrés" jatetxean afaria

Igandea

Buffet gosaria

Sojelako Golf Zelaiko partida (18 zulo)

Casa Club jatetxean janaria

GUZTIRA:

664€ (bi pertsonentzako, asteburuan)

Aymerich Golf Club

Informazioa eta erreserbak: 941 446 766 telefonoz
Ciudad de Cenicero Hotela / Majadilla z/g /
26350-Cenicero (Errioxa) / Telf 941 454 888



Ciudad de Cenicero hotelaren logela

SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

		3	5		8		
	4						
		6	9			5	
	2	7		8		3	4
				3		1	
6					4		2
	8		2				
	7	5	8			4	

LAN ESKAINTZAK

ERIZAINZAKO DIPLOMADUNA
Arrasateko Udalak Erizaintzako Diplomaduna kontratatu behar du. EGINKIZUNAK: postuari dagokionak. EZINBESTEKOAK: Erizaintzan Diplomatura eta 3. HE (kreditatzen ez dutenentzat euskara proba egingo da). LAN JARDUNA: %50. KONTRATUA: 2009. Urterako. SOLDATA: 1. 160 euro. HASIERA DATA: 2009/01/12. INTERESATUAK ZUZENEAN AURKEZTU BEHAR DIRA ARRASATEKO UDALEAN, URTARRILAREN 8an GOIZEKO 10: 00tan, HAUTAKETA PROBAK EGITEKO (elkarrizketa bat eta euskara proba 3. HE kreditatzen ez dutenentzat).

INJENIARI TEKNIKO MEKANIKOAK
Ofizina teknikoan proiektuen diseinua egin eta proiektu horien fabrikazio prozesuaz arduratu. Ezinbestekoa injenieritza tekniko mekanikoko formazioa, Autocad programa erabiltzen jakitea, euskera, gutxienez 3 urtetako esperientzia antzeko lanpostuetan eta diseinu industrialean. Burdin arloko enpresetan esperientzia, komertzial perfla izatea eta urola bailaran bizitzea baloratuko da. Hasieran 6 hilabetetako lan kontratua eskeintzen da bertan gelditzeko aukerarekin.

FORMADORA DE PÁGINAS WEB PARA BIZKAIA

Empresa de Bilbao precisa formador/a para impartir formación sobre elaboración de páginas web a profesorado de ikastolas de Bizkaia. Imprescindible: conocimientos de Internet, de aplicaciones para el diseño gráfico y web, así como del buscador Google y dominio de euskera a nivel hablado. Ofrecen: contrato temporal de 7 semanas a media jornada y salario aproximado de 563 euros brutos/mes + dietas y kilometraje.

ETXETAKO LANAK ETA UMEAK ZAINTZAILEA

Etxe lanak egin (bazkaria prestatu, garbiketa...) umeei bazkaltzen eman. Euskalduna. Tolosaldekoa izatea. Esperientzia duen pertsona. Goizero 10: 00etatik 13: 00etara eta astean 3 arratsalde 16. 00etatik 20. 00etara. Soldata 700 euro. Hasteko lehenbailehen.

TEC. SUP. DE RRLL

Evaluación de riesgos laborales en centros escolares y otros. Contrato inicial por obra o servicio. Jornada y horario de lunes a viernes 8-13 y 15-18. Salario aproximado 18. 000 euros anuales. Imprescindible tener formación de técnico superior en prev. De RRLL en las tres especialidades ergonomía y psicología, higiene industrial y seguridad en el trabajo. Dominio del euskera.

INGENIERO INDUSTRIAL (ESP. CONSTRUCCION)

Se busca un/a ingeniero industrial para empresa ubicada en Berriz. Funciones: ingeniero proyectista, redacción y dirección de proyectos de urbanizaciones, naves, redes de servicios... Requisito imprescindible: ingeniería industrial (esp. Construcción). A valorar: conocimientos gest, presto, cad, tricalc, cype... Y euskera. Se ofrece contrato temporal con posibilidad de indefinido. Jornada completa. Incorporación inmediata.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

ERANTZUNAK

1	3	4	6	9	8	9	8	7	2
1	8	4	2	2	3	3	3	6	9
6	3	9	7	1	4	5	2	8	
4	5	8	6	3	9	1	7	2	
3	6	1	4	7	2	9	8	5	
9	2	7	1	8	5	3	4	6	
8	1	6	9	4	7	2	5	3	
5	4	2	3	6	8	7	1	9	
7	9	3	5	2	1	8	6	4	

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbao
TESTUAK ETA DOKUMENTAZIOA: Tais San José
MAKETAZIOA: Gonzalo Peña
EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ilastegia
EGILEA: Leizaola Elkarte
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ekintza honek Bizkaiko Foru
Aldundiaaren Kultura Sailaren
laguntza jaso du.

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2008ko Abendua

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Lo nuestro es garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

BIZKAIA, lo nuestro